



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2019KO UZTAILAREN 29AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko uztailaren 29an eta arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ez ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, M^a Mar Ansorena, Olatz Dorai, Ricardo Arangoa eta Xabier Azpiroz.

BERTARATU EZ DIRENAK: Julen Beunza.

Bertaratu dira baita ere M^a Carmen Madoz (Itsasoko kontzejuko ordezkaria), Andoni Mariezkurrena eta Sarai Etayo (Igoako kontzejuko alkatea eta Igoako kontzejuko ordezkaria hurrenez hurren)

19:00etan alkateak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

Gai ordeneko bigarren puntuaren azterketarekin hastea proposatzen du alkateak.

2.- Udabe Beramendi, Orokieta Erbiti eta Igoan fibra optikoa jartzeko obra egikaritzeko esleipena.

Alkateak azaltzen du uztailaren 26an baloratu zirela obra egikaritzeko aurkeztu ziren proposamenak. Bi empresa aurkeztu ziren esleipen prozesura Sisnet Nuevas Tecnologias eta Ipkonekta. Baldintza pleguaren arabera lehenik memoria tekniko eta obraren programazioa baloratzen ziren. Honekin lotuta Sisnet empresak memoria osatuagoa aurkezten du eta programazioa ere, aldiz Ipkonekta empresak ez du programazio aurkezten eta memoria xumeagoa, zehaztapen gutxiagorekin. Horregatik honen inguruko puntuazioa 8 eta 8 hurrenez hurren Sisnet empresarentzat eta 6 eta 2 hurrenez hurren Ipkonektari eman zaizkie, memoria eta programazioaren inguruan.

Ondoren baloratzen zena desgaitasunen kontratazioa eta berdintasun jarduketak egitea. Honen inguruan Sisnet empresak desgaitasuna duen pertsona bat kontratatuko zuenaren konpromezua aurkeztu zuen eta berdintasunarekin lotuta 8 orduko formazioa emanen zuela haren langileei. Horregatik 7 puntu jaso zituen eta aldiz Ipkonekta empresak ez zuen arlo honekin dokumentaziorik aurkeztu hortaz 0 jasotzen ditu.

Berme epearen luzapena eta proposamen ekonomikoa baloratu ziren bukatzeko. Obraren berme epea 3 urtekoa da baldintza pleguaren arabera, berme epe hau haunditzen zen urte bakoitzeko 4 puntu banatzen ziren. Ipkonekta empresak ez zuen berme epe zabaltzen, hortaz 0 puntu jasotzen ditu eta Sisnet empresak 5 urteko luzapena proposatzen zuenez gutxienerako 3 urteko berme epea, 20 puntu jaso zituen.

Bukatzeko proposamen ekonomikoaren baloraketa egiteko kontutan hartu zen lehenik obraren esleipen aurrekontua 69.500 eurokoa BEZ kanpo. Aurrekontu honen azpitik Ipkonekta empresak 68.757,54 euroko aurrekontua aurkezten du eta Sisnet empresak 48.650,01 eurokoa, biak BEZ kanpo.

Guztira hauek dira enpresek jasotako puntuak:

Empresa	Memoria	Programazioa	Desgaitasuna	Berdintasuna	Bermea	Ekonomikoa	GUZTIRA
Sisnet	8	6	3	4	20	50	93
Ipkonekta	6	2	0	0	0	35,38	43,38

Esleipen proposamena ikusita eta baldintza pleguaren arabera puntuazio altuena izanik, bildutakoek ondoren zehazten den erabaki hartzen dute:

-Udabe Beramendi, Orokieta Erbiti eta Igoan fibra optikoa jartzeko obra Sisnet Nuevas Tecnologias empresari esleitzea 48.650,01 eurotan BEZ kanpo eta obraren berme epea guztira 8 urtekoa izanen delarik.

. Jakinarazi akordio hau Sisnet Nuevas Tecnologias empresari eta esleipenera aurkeztu diren beste enpresei.

1.- Beramendin iharduera ekonomikoen gunea sortzeko udal planaren aldaketa.

Alkateak azaltzen du udal planaren hasierako onespenerarekin iharduera ekonomikoen jarduketara gunea finkatzen zen, iharduera ekonomikoa jartzeko zonalde bera, hau da S1 unitatea eta baita ere gunea haunditzeko aukera izateko babesgune bat ere. Gune

hauetan sartuak dauden lursailak komunalak dira. Hasierako onespeneko akordio horrekin batera ere baimenak etenak gelditzen ziren urte bateko epean.

Orain proposatzen den akordioa jarduketa eremu hori haunditzea da, 100 metrotara, hau da S1 unitatea eta babesgunetik 100 metro gehiago zabaltzea jarduketa eremua, (iharduera ekonomikoen jarduketa eremutik 100 metro).Gune guzti horretan etenak geldituko ziren baimenak ere. Kontutan hartuta eremu horren albo batean Itsasoko errepidea dagoela eta errepide orokorra, NA411 errepidea. Eremu horretan mugak errepideak finkatzen dituzte, jarduketa eremua errepidetik pasatu gabe. Kontutan hartuta gainera 2018ko uztailaren 16an onartu zela hasiera batez iharduera ekonomikoen gunea sortzeko udal planaren egiturazko aldaketa, baimenen etetea luzatzea ere proposatzen da beste urte baterako, bitartean tramitaziok aurrera egiteko. Azaltzen du baita ere alkateak, Dorrea Gaztandegiarekin harremanetan dagoela udala, iharduera ekonomikoen gunean sartzeko eta duen azalera kontutan hartuz gastuen banaketan parte hartzeko hitzarmen baten bidez. Iharduera ekonomikoen gunean sartuko balitz industria erabilera izanen luke bere lurzoruak eta ez landa erabilera egun duen bezala.

Hau guztia aztertu ondoren bildutakoek aho batez ondoren zehazten den akordioa hartzen dute:

- **Beramendin sustatu den iharduera ekonomikoen gunearen jarduketa eremu zehaztea, berez jarduketa eremua osatzen duten S1 unitatea eta honen inguruan babesguneko terrenoaz gain, hauen eremutik haratago 100 metrotara finkatzea jarduketa eremua, Itsasoko errepidea eta NA 411 errepideak muga izanik.**
- **Luzatzea Beramendin sustatu den iharduera ekonomikoen gunearen baimenen etetea beste urte baterako.**

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 19:45 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.